

**Martxoaren 8ko greba
feminista antolatzeko
bilera deitu dute**

**Zu ere Mintzalagun
izan zaitezke**

**Udal diru-laguntzak
eskatzeko epea zabalik**

Adinekoen egoitza bat eraikiko dute Kalezarren

Udazkenean hasiko dituzte eraikitze-lanak





Iruin Sagardotegia


Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubietta



AZKEN 2
PLAZAK!

TAILANDIA



NOAOA
BIDAIAK

BIDAIAK
TALDEAN

943 373 613

IRTEERA MAIATZEAN

LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus

noaoa.eus

OTSAILAK 22
OSTIRALA

19:00etan
Ondoren
gutuzia bereziz
osaturako
luntx-afaria.



MAIALEN
LUJANBIO



AITOR
MENDILUZE

SARRERAK
SALGAI

HESKURRI
KRONIKA
KIXKAL
ARALAR

ERRORTZU
IRRINTZI
TABERNA

OKAZIETA
AMAIA
KAFETEGIA

ASTIGORRAGA
IKATZA

25 € 20 €

IRTEERA MAIATZEAN
2024ko otsailaren 22an
19:00etan



Gai-jartzailea
UNAI ELIZASU



UNAI AGIRRE



ONINTZA
ENBEITA

Bertso gutuziak

BASQUE CULINARY CENTEREN



IRTEERA MAIATZEAN
Kronika

IRTEERA MAIATZEAN
INSALUS

Albiste iruditan

Nataliren bideoklip berria, ekoizpen fase betean

Aginagako Eliza Zaharraren buelta grabazio gunean bilakatu zuen otsailaren 9an Natali musika taldeak. Natali Izagirrek, Ixak Arrutik, Olaia Inziartek, Gorka Mendizabalek eta Andres Insuak sortutako "Zerbait aldatzera doa" abestiaren bideoklipa grabatzen aritu ziren elizaren bueltan lehenik, eta azken urteotan auzolanean eraberritu eta kultur gunea dinamizatzen aritu diren eraikin barruan. Taldeak disko berria plazaratzear du eta martxorako "Garena Tour" kontzertu bira iragarri du. Informazio gehiago: natalimusika.com



Taldeak disko berria plazaratzear du eta martxorako "Garena Tour" kontzertu bira iragarri du.

Laburrean

Iñaki Agirresaroberen erakusketa Zarautzen

Iñaki Agirresarobe Arzallusek Zube-roako Maskaradan eginiko argazkiak batu ditu Zarauzko Euskalduna tabernan. Otsaila osoan zehar egongo da erakusketa zabalik.

1944an jaiotakoen bazkaria

Maiatzean biltzeko deia egin dute 1944an jaiotakoek. Bazkariaren eguna eta tokia, izen ematearen gainerako xehetasunak aurrerago plazaratuko dituzte. Momentuz hitzordua iragarri nahi dute.

Euskal presoen eskubideen alde

Hilero moduan, euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea deitu du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak. Hitzordua, otsailaren 22an 20:00etan Mikel Laboa plazan.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatorak:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Badira 10 urte

Adinekoen egoitza berria iragarri dute Foru Aldundiak eta Matia Fundazioak. Kalezarren erai-kiko dute, garai bateko mojen komentuaren lur eremuan. Berritzailea izango dela azpimarratu dute. Aitzindaria. Eredugarria.

Azken urteotan oharkabean igaro da gaia, baina adinekoen egoitza eraikitzeo egitasmoa aspalditik datorren kontua da. Serorek Casa Miravalleseko komentua utzi zuten garaikoa. Badira 10 urte. “Kalezarreko mojak joan egin dira herritik”, halaxe genion 2009ko azaroaren 6an plaza-

ratu genuen aldizkarian.

XX. mendean, Miravalles etxea ikastetxe izan zen. “Oso zorrotzak ziren moja hauek baina ongi prestatuak ateratzen ziren bertatik pasatakoak”. Halaxe zioen Maider Makazagak, Kalezarreko gure kronistak.

Azken urteetan ordea, komentuan ez zen eskolarik ematen eta erretiroko etxe gisa baliatzen zuten. ‘Gizakia Helburu’ taldearen egoitza ere bazen baina zerbitzu hori Matia Fundazioak kudeatzen zuen.

2009ko azaroaren 6ko NOAUA!k bestelako xehetasunik ere eskaintzen zuen: “Mojen etxea izan dena, zahar

egoitza berrian bilakatuko da. Egokitze-lanak iraun bitartean, herritik kanpo izango dira. Ondoren, erresidentzia berria bukatzen dutenean, itzultzeko aukera izango dute”. Agindutakoaren kontra, ‘egokitze-lanek’ oso luuuuze jo dute. Mojak joan ziren, erai-kina eraitsi zuten eta geroztik zelaigune hesitu bat izan da komentua eta ingurua. Zaintzaren premian dagoenak ordea, ez du epeez ulertzen. Etxean menpeko adineko bat duenak (edo izan duenak) ederki asko daki hori.

2021erako amaituko dute egoitza berria. Halaxe agindu

dute Foru Aldundiak eta Matia Fundazioak. Asmatuko ahal dute orainoan.

Serorak gora serorak behera, joan den asteko iragarpenean ez zuten euren kongregazioaz ezertxo ere esan. Ez dakigu berriro bueltan ekarriko ote dituzten. Jainkoak beste egoitza baten bidean ipiniko zituen akaso. Auskalo. Usurbilgo nahiz Buruntzaldeko herritar askok gogotik eskertuko dute albiste. Egoitzarena aspaldiko aldarrikapena baita. Jubilatuek eta pentsiodunek behin baino gehiagotan nabarmendu duten moduan.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

Ika-mika

Bide-lapurrak

Xabier Arregi alkateak ederki azaldu du *Udalberri* aldizkarian erakundeak nola ari diren isil-isilik beren errepide planak antolatzen, herritarrei kontsultarik egin gabe eta informazioz eman gabe (Pa bariar: abiadura handiko tren, super portua, etc.). Bideen antolamenduak gure bizimoduan sekulako garrantzia izango duen arren.

Erakundeek (“Euskadi auzolana”), gure bizimodua

goxatzea erabaki dute, gainera. Milaka trafiko seinale jarri dituzte, baina...

- Batzuetan, gehiegi dira seinaleak eta ez dago astirik denetara begiratzeko.

- Batzuetan, alferrikakoak dira: adibidez, bide estuetan ezker-eskuin seinale berberak.

- Batzuetan, errealitatea adierazten ez dutenak: Donostia aldetik gatzela, Luzuriaga aldean dagoen batek gurutzeta dagoela dio.

Bideetako seinale-baso hori egunez egun ugaritzea, gure ustez, herri diruen lapurreta moduan hartzeko modukoa da. (“Euskadi, bien común”)

Bitartean, Zubietia herrixka txikian sekulako jendetza dabil egunero oinez. Gure ustez, komeniko litzateke oinezko horiei abisatzea ezkerretik ibili behar dutela (edo komeni zaiela), seinale bidez. Eta, ilunabarrean ateratzen diren herritar kirolzaleei, arropa iluna

bakarrrik eramatea arriskutsua dela.

Zer uste zenuen ba, arriskutsua bakarrrik izango zela erraustegia, eta erakundeen korrupzioa, eta poliziak euskararen kontra egon eta multa guri jartzea, eta desinformazioa, eta nepotismoa, eta erdarazko prentsari euskarazkoari baino diru laguntza gehiago ematea, eta...?

Edorta Agirre

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.



Añerrea Ingurumen Elkarte

Ucin: galdera irekiak

Orain dela pare bat urte Usurbilgo herriko lurra, aire eta uraren kalitatearen alde lan egiteko asmoarekin, eta ondorioz, guztion osasunaren alde, herritar talde batek Añerrea Ingurumen Elkarte sortzea erabaki genuen.

Besteak beste eta helburu horiekin, Jose Maria UCIN S.A. enpresaren jardueraren kudeaketak usurbildarrongan zein airean, lurrian edo uretan sortu ditzaketan arazoengatik eta kutsaduragatik, udalari eta Eusko Jaurlaritzari eskaera bat egin genien: UCIN-en instalazioetatik tratamendurik gabeko emisioak ateratzen ez direla bermatzearen, enpresari teiltuan dauden irekiak berehala ixteko agintzea.

Biek, Eusko Jaurlaritzak eta Usurbilgo Udalak, UCIN S.A. enpresak obra egitea aurreikusita zeukala eta horrekin isurketen arazoak konpontzea espero zutelara esan ziguten. Erantzun horren bidez, inplizituki biek ala biek UCIN enpresak tratamendurik gabeko isurketak egiten zituela aitortzen zuten.

UCIN, S.A. enpresak estalkiaren zati bat altxatzeko eta mantenu labearren kanpai berria, tximinia berria eta filtro berriak jartzeko 2018ko abuztuko hilabetea hartu zuela jakin genuen, hilabete horretan bere jardueran etenaldia izaten duela baliatuz.

Obra horren baimena Uda-



"UCIN S.A. enpresak ez ditu obra baimenaren baldintzak bete".

laren eskumenekoa denez, udalarekin hitz egitea erabaki genuen. Jakin genuenez, Udalak, 2018ko uztailean UCIN S.A. enpresari obra gauzatzeko baimena eman zion, bestean artean baldintza hauetan: lehenik, estalki berriak ITXIAK izango zirela (larriz idatzita), eta bigarrenik, obrak amaitu ostean eta jarduera berriro hasi aurretik obraren bukaeraren txostena aurkeztu behar zuela.

Ikusita 2018ko irailaren hasieran J.M. UCIN S.A. bere jarduerarekin hasi zela berriro, irailaren bukaera aldera Udalarekin bildu ginen eta obraren emaitzari buruz galdetu genion. Udalak, oraindik J.M. UCIN S.A. enpresak obraren amaieraren txostena entregatu ez ziolako informaziorik ez zeukala erantzun zigun. Ondorioz, enpresak nolako obra burutu zuen jakin ahal izateko Udalari lantegian bertan ikuskapena egitea eskatu genion.

Denbora pasatzen zela eta informaziorik jasotzen ez genuen-

ez, 2018ko azaroan udaletxean idatzi bat aurkeztu genuen udalak UCIN S.A. lantegian ikuskapen bat egin zezan berriro eskatzeko.

Azkenik, 2018ko abenduan Udalak jakinarazi zigun J.M. UCIN S.A. obra amaierako ziurtagiriak oraindik aurkeztu gabe zituela.

Puntu horretaraino iritsita, 2019ko urtarrilean 10ean Añerrea Elkarteak obra baimenean jasotzen diren baldintzak bete gabe, J.M. UCIN S.A. enpresak bere lantegiaren jarduera martxan jarri duelako UCIN S.A.-ren kontra salaketa bat aurkeztu genuen. Orain publikoa egiten duguna eta udalaren eskutan dagoena, bera baita gai honetan eskumena duena.

2019ko urtarrilaren 26an alkateta eta Udaleko ingurumen teknikariarekin bildu ginen berriro. Obraren bukaerako ziurtagiriak jaso dituztela eta obraren emaitzak ikusteko lantegian egon direla esan digute. Bilera horretan

adierazi digutenez, UCIN S.A. enpresak teiltua ez du itxi.

UCIN S.A. enpresak ez ditu obra baimenaren baldintzak bete. Teiltua ixtea eskatzea ez zen gure edo Udalaren apeta bat; herritarrok maiz ikusi dugu teiltu horretatik tratamendurik gabeko kea ateratzen (bideoak eta argazkietan grabatuta izan ditugu). Herrian barreiatzen diren usain kutsakorregatik pasaden astean Udalak herritarren kezak jaso zituen beste behin. Nondik sortzen dira herrian sakabanatzen diren usain horiek?

UCIN S.A.-ren isurketa kutsakorrik sortzen ez dela bermatzeko teiltuaren itxiera eman behar diren beharrezko pausuen artean lehenengoa da, baina ez da nahikoa. Horregatik Udalari adierazi diogu JOSE MARIA UCIN S.A. enpresari emandako Jardueraren Lizentzia aldatzearen beharra eta berriro, 2020ko ekainaren 13an Europa mailan indarrean sartuko diren emisio baloreak eta isurien etengabeko jarraitpenen baldintzak txertatzea.

UCIN enpresako arduradunei galdetzen diegu: zergatik ez duzue betetzen Udalak agindu dizuenak?

Udaleko agintariei galdetzen diegu: zer egingo duzue orain?

Gure aldetik, osasuna eta ingurumenaren aldeko lana egiten jarraituko dugu.

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825



693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL



606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL



649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Kataluniako politikari auziperatuen eta demokraziaren alde mobilizatzeko deia

Asteartean (otsailak 12) abiatzeko zuten Madrilén, Espainiako Auzitegi Gorenean preso dituzten Kataluniako buruzagi independentisten aurkako epaiketa. 2017ko urriaren 1ean erreferenduma antolatu eta Kataluniako independentzia aldarrikatzeagatik, akusatuen aulkian eserarazi eta epaituko dituzte. Fiskaltzak 7-25 urte arteko espetxe zigorrak eskatzen ditu haientzat.

Gure Esku Dago mugimenduko ordezkari bat Madrilgo epaiketara joatekoa zen egunotan, injustizia hau irmoki salatu eta preso politikoei eta haien senideei babes osoa adierazteko.

Mobilizazio astea

Testuinguru honetan kalera irteteko ordua dela azpimarratzen dute Gure Esku Dago mugimendutik. Epaiketa hastekoa zen astearterako elkarretartzea deitua zuen Mikel Laboa plazan, "Elkartasuna aterpe. Konponbidea. Democrazia.



Mobilizazioetan demokraziaren aurkako epaiketa izango dena salatuko da. Argazkia, artxibokoa.

GURE ESKU DAGO

"Otsailaren 17rako manifestazioa deitu du Donostian; 12:00etan abiatuko da Groseko Katalunia plazatik"

Libertat" aldarripean. Eta otsailaren 17rako manifestazioa Donostian; 12:00etan abiatuko da Groseko Katalunia plazatik

Boulevard aldera. Elkartasun keinu gisara, Gure Esku Dago hori koloreko xingola, jantzi eta abarrekin parte hartzea deitzen dituzte herritarrak hitzorduotan.

Mobilizazioetan demokraziaren aurkako epaiketa izango dena salatuko da. Erabakitze eskubidearen aldeko herri mugimendutik gogorarazten dutenez, "ez dago jokoan soilik, egun preso diren buruzagi ka-

talaren askatasuna, pertsona guztien eskubideak ere bai". Eskubide zibil eta politikoak. Hain zuzen, epaiketa honekin, auziperatuen oinarriko eskubideak urratuko direla ohar-tarazten du Gure Esku Dagok. Erreferendun demokratiko bat epaitu eta zigortu nahi dutela eta honenbestez, herrien autodeterminaziorako eskubidea ukatu asmo du epaiketa honek, Gure Esku Dagoren esanetan.

Prekarietateari ateak ixteko deia

Gaur Usurbildik dei egiten diogu Euskal Gazteriarri sistemari hortzak ateraz, Euskal Herria eraikitze borrokara batzeko, otsailaren 16an denak Bilbora!". Hortxe Usurbilgo Ernaik eta Aztarrika gazte mugimenduak, hilaren 7an Mikel Laboa plazatik luzatu zuten gonbita. Lan eta bizi prekarietatearen aurkako elkarretartzea egin zuten frontoi atzean, eta hitzordu honen bidez, larunbatean, otsailaren 16an, Euskal Herri mailako Enai gazte antolakundeak gai beraren hari-



Larunbat honetarako manifestazioa deitu dute Bilbon. Autobus zerbitzua antolatu dute Usurbilen. Aurrez izena emateko zerrenda Aitzagan da.

ra Bilbon deitua duen mobilizazioarekin bat egin zuten.

Manifestazioa larunbat honetan izango da; 17:30ean

abiatuko da Iberdrolaren dorre ondoko Euskadi plazatik. "Patronalaren sinbolo den Iberdrola dorre paretik abiatuko da mobilizazio nazionala. Bilboko kaleak hartuko ditugu prekarietatea gelditu eta Euskal Herrian bizi nahi dugula aldarrikatzeko. Kaleak hartuko ditugu, egungo egoera irauli eta agertoki berri bat sortzeko. Adi, prekarietateari ateak ixtera goaz!".

Adi, hara joateko autobus zerbitzua antolatu dute. Aurrez izen emateko zerrenda Aitzagan duzue.

Martxoaren 8ko greba feminista prestatzeko lehen bilera

Iaz bezala, planto egiteko deia egin du Euskal Herriko Mugimendu Feministak datorren Martxoaren 8rako. 24 orduko greba feminista deitu dute hiru aste barrurako. Hitzordua prestatzen hasteko, Usurbil mailako lehen bilera deitu du emakume talde batek, ostegunerako (otsailak 14) 18:30etan Potxoenean.

“Etxekoandreon, ikasleon, enplegatuon, erretiratuon, hango eta hemengoon, enplegurik ez eta lana soberan dugunon artean Martxoaren 8ko greba feministari forma emateko, antolatzeke, aliantzak sortzeko, konspiratzeko... biltzeko asmoa dugu. Lehen bilera da eta, nola ez, zu(ek) ere bertan egotea nahi dugu! Denon artean, M8an emakumeok* planto!”.

Greba eskaera, erregistratua

LAB, ELA, ESK, Steilas, EHNE, Hiru, CGT eta CNT sindikatueko emakume ordezkariak, hau da euskal gehiengo sindikalak, Martxoaren 8rako, 24 orduko greba feministarako deialdia erregistratu zuten joan den astean. Modu honetan, sindikatu guztiok Euskal Herriko Mugimendu Feministak aipatu egun horretarako iragarritako egun osoko greba egunarekin bat egin dute.

“Greba feminista egungo sistema zalantzan jartzeko egu-



Usurbil mailako lehen bilera deitu du emakume talde batek, ostegunerako (otsailak 14) 18:30etan Potxoenean.

GEHIENGO SINDIKALA

“Martxoak 8an emakumeok planto egingo dugu lantoki eta etxeetan, kalera aterako gara beste eredu baten alde, bizitzak erdigunean jarriko dituen eredu baten alde, eta horretarako, borroka sindikala eta feminista esku-hartuta joango dira”

na izatea nahi dugu. Izan ere, egungo sistema kapitalista, heteropatriarkal eta kolonialistaren barruan, emakumeok egiturazko diskriminazioa pairatzen jarraitzen dugu”, LAB sindikatuko idazkari nagusi Garbiñe Aranbururen esane-

tan.

Batetik enplegu greba izango da. “Guk sufritzen ditugulako prekaritatea eta diskriminazio egoera gordinenak: behin-behinekotasuna, kontratu partzialak, soldata arrakala (emakumeok gizonenak baino %24 gutxiago irabazten dugu)”.

Baina enplegu grebatik haratago joango da deialdia. Zaintza lanak ikusgarri egin, lan hauei dagokien aitortza politiko, ekonomiko eta soziala egin, eta erdigunean jarriko dituzte, eta horrekin batera, “sexuaren arabera lanaren banaketak ekartzen dituen diskriminazioa eta esplotazioa”.

Lantokietan eta etxeetan

Honenbestez, lantoki eta etxeetan 24 orduko greba feminista eguna deitu dute Martxoaren

8rako. “Martxoak 8an emakumeok planto egingo dugu lantoki eta etxeetan, kalera aterako gara beste eredu baten alde, bizitzak erdigunean jarriko dituen eredu baten alde, eta horretarako, borroka sindikala eta feminista esku-hartuta joango dira”.

Coral Herreraren hitzaldia, Ikastolako jangelan

Bisitari berezia ostiral honetan (otsailak 15) Usurbilen. Costa Ricatik gure artera dator Coral Herrera (Madril, 1977). Giza zientzia eta komunikazioan doktorea, genero ikuspegiatik giza zientzien inguruko gaien ikertzaile eta idazle ezaguna. Maitasun erromantikoaz luze zabal ariko da, “Maitasunaz gozaten duten emakume eta gizonak” hitzaldian.

Udaleko Parekidetasun Sailak antolatu du

Adi antolakuntzaren ohar honi. Aforo aurreikuspenengatik, hitzaldia lekuz aldatu du Udaleko Parekidetasun Sailak. Honenbestez Potxoenean ez, Coral Herreraren solasaldia, otsailaren 15ean, 18:30ean, Udarregi Ikastolako jangelan!

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Patxi
Patriketa
Iatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Agurtzane Solaberrieta Mesa, EHBilduko alkategaia

Agurtzane Solaberrieta Mesa izango da Usurbilgo EHBilduren hautagaia, datozen maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako. Koalizioak hilaren 9an eman zuen ezagutzera, hautagaitza berretsi eta herri programa lantzeko EHBilduk Potxoenean deitua zuen herri batzarraren ostean.

Egungo EHBilduko alkate Xabier Arregik aurkeztu zuen hurrengo hauteskundeetarako alkategaia, “oso pertsona jantzia eta prestatua lan horretarako”. Kazetaritzan lizentziatua da Solaberrieta Euskal Herriko Unibertsitatean. Kazetari gisa lan egindakoa NOAUA!n eta Berria egunkarian. Herri bizitzan hamaika ekimenetan parte harturikoa; EHE, ezker independentismoa, Gure Esku Dago... “Horrek guztiak emandion ibilbide oparoak egiten du Agurtzane guretzat hautagai ezinhobea izatea”.

Emankortzat jo zuen Solaberrietak datozen lau urteotan jorratuko duen bidea eta horretan, bidelagun izango dituela adierazi zion Arregik. Alkategai berria eta Usurbil zoriondu zituen Arregik.

“Egiten duguna gara”

Egungo alkatearen lekukoa ohore eta errespetu gisa jasotzen duela adierazi zuen alkategai berriak. “Oso altu jarri du



Xabier Arregik aurkeztu zuen hurrengo hauteskundeetarako alkategaia, “oso pertsona jantzia eta prestatua lan horretarako”.

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Ez naiz lemazain sentitzen. Lema hemen dago”, zioen alkategai berriak, herri-programa osatzen aritu direnak seinalatuz

langa Xabik. Alimaleko alkatea izan da”, Solaberrietaren hitzetan. Eskerrak helarazi nahi izan zizkion egungo Udaleko komunikazio arduradunak, alkateari eta udal gobernu taldeari. “Asko ikasi dut zuekin”, adierazi die.

Erronka berriari ilusioz, gogotsu eta erantzukizunez ekingo diola iragarri du. Berarentzat bat eginda dauden hautu pertsonal eta politikoaren bueltan, “konpromiso kolektiboari” emanda garatu duen bidean sakontzeko asmoz, proiektu bereko parte eta kide sentitzen direnez inguratua. “Ez naiz le-

mazain sentitzen. Lema hemen dago”, zioen alkategai berriak, herri-programa osatzen aritu direnak seinalatuz. “Berrero ere frogatu ahal izan dut lantalde honen emaria zein aberatsa eta askotarikoa izan den”.

“Elkarrekin burujabe”

Lelo honekin aurkeztu du EHBilduren alkategaia, 2019-23 legegaldiko “azala eta mamia”. “Burujabetza agenda politikoaren erdigunean dago”, zioen Potxoenean alkategai berriak. Herri-programa burujabetza prozesu horretan sakontzeko bitarteko gisa aurkeztu zuen, “egitasmo burujabe eta aitzindarien bidez, herri eta pertsona bezala ahalduntzeko tresna” moduan.

Elikadura, lurralde, gorputz, energia... burujabetasunerantz, “ariketa hauek elkarrekin egin nahi ditugu. Usurbilen osatzen duten herri/auzo guztiekin eta herritar ororekin”.

Besteak beste, herrian falta direnekin. Patxi, Olatz eta Xua-ren etxeratzea eskatzeko baliatu zuen tarte hau.

Herri-nortasuna, eredu jasangarria eta ongizartea

2021ean Usurbil Donostiatik bereizi eta burujabe izatea erabaki zuenetik 650 urte betetzeko atarian garen honetan alkategaia zioenez, “asmatu behar dugu gure baloreei eta izaerari eusten, Donostiak irentsi ez gaitzan”.

Herri burujabea izan eta “gure burua babesteko”, azken urteoon ildo beretik, hiru arreta gune nagusi eta ehunetik gora proposamen ditu EHBilduren herri programak, hurrengo legegaldirako. Herri-nortasuna, herri-eredu jasangarria eta ongizatea, “hiru esparru horiek elkar-elikatu egiten dute, eta osotasuna ematen gure herri-ikuskerari”.

Eskuartearen duten proiektuaren erdigunean, “bizitzak, pertsonak, usurbildarrak daude”. Etorkizuneko Usurbil marraztu nahi izan zuen. “Bazterketarik gabe eta askatasunez bizi ahal izango den Usurbil jasangarria eta bizigarria zerumugan, ingurumenarekin harmonian biziko dena, herri/auzoen nortasuna errespetatzen duena, herritar eleaniztunez osatua, eta bizikidetzeta eta kultura-aberastasuna oinarri, euskaraz biziko dena”.

Elkar ezagutzeko guneak

Migrazio politika egokiak garatzeko beharra azpimarratu zuen Solaberrietak. “60. hamarkadan Espainiatik etortritako migrazio uholdearekin egindako kudeaketa txarra ezin dugu errepikatu”.

Oraindik ere honen ondorioak pairatzen ari garela ohar-tarazita, “ezin ditugu berriz ere bloke hermetikoak sortu; auzoak getifikatu, marjinatu.

Usurbilen ere badugu horren arriskurik, esku hartzen ez badugu”. Zentzu horretan, gogorarazi duenez, “erabat euskal kulturatik kanpo eta euskalduntasunetik kanpo dagoen komunitate bat egon badago Usurbilen. Eta horiek ere herriaren parte dira. Banderitxoak baztertu, eta ñabardurei eta parpaila finei jarri behar diegu arreta”.

Euskara eta euskal kultura, kohesiorako elementuak

Eremu honetan, hurrengo urteotan jorratu beharreko bidea marraztu zuen. “Mamuak, estigmak, mehatxuak ahaztu, eta elkar ezagutzeko guneak sortu behar ditugu”.

Elkarbizitza horren mui-nean euskara eta euskal kultura kokatu zituen, kohesiorako elementu gisa.

Arnaldo Otegi Sutegin

EHBilduko koordinatzaile orokorra Usurbilen izango da otsailaren 21ean osteguna. Mertxe Aizpuruak gidatuko du ekitaldia, arratsaldeko 18:30ean hasita Sutegin. Usurbilgo EHBildutik iragarri dutenez, “aktualitate politikoa eta ekonomikoak, bizikidetzaz, EHBilduren erronkez, hauteskudeez...” ariko da Otegi.

Zu ere Mintzalagun izan zaitezke

Etumeta AEK-tik nabarmentzen duten moduan, hau ez da euskaltegitik euskaltegikoei zuzenduriko eskaintza, herri-
tik herriarentzat sortua baizik. Jada bederatzi urte bete dituen Mintzalagun ekimenari buruz ari gara. Urte osoan zehar egoten da zabalik izen emateko epea, baina ikasturte hasieran bezala, urte berrian murgiltzearekin batera biderraten dute sustatzaileek herritarrak parte hartzera gonbidatzeko kanpaina.

Etumeta AEK euskaltegiarekin batera, NOAUA! Kultur Elkartea eta Usurbilgo Udala daude inplikatuak Mintzalagunen, baina euskaltegitik gogorarazi digutenez, “egitasmu honetako benetako protagonistak herritarrak dira, herritar eskuzabalak”.

Biek irabazten dute

Bidelari eta bidelagunak, mintzapraktika hobetu nahi edota haiei laguntzeko prestasuna duten guztiak. Herritar eskuzabalak denak, “bi aldeek, praktikatu nahi duenak eta praktikatzaile horri lagundu nahi dionak, biek irabazten baitute”.

Batzuk zein besteak ezinbestekoak dira Mintzalagun egitasmorako. Konpromisoa astero, ordubeteko. “Gero nahi duten denbora luzatu eta egin dezakete nahi dutena. Kontua tarte horretan euskaraz hitz egitea da”.

Irteerak

Asteroko saioekin batera, Mintzalaguneko kide guztiak batu eta herri osoari zabaltzen zaion ekintzarik egiten dute urtero. Iaz esaterako, Txokoaldeko Txalaparta Txokoa bisitatzen izan ziren. “Irteerari esker asko ikasi zuten eta oso ondo baloratu zuten. Oso arrakastatsua izan zen”.



Jada bederatzi urte bete ditu Mintzalagun ekimenak.

MINTZALAGUN

Etumeta AEK euskaltegiarekin batera, NOAUA! eta Udala daude inplikatuak Mintzalagunen, baina “benetako protagonistak herritarrak dira, herritar eskuzabalak”

“Probatzen duenak, gustura jarraitzen du”

Proiektuko partaide bilakatu nahi baduzu izena eman dezakezu NOAUA! Kultur Elkar-
teko egoitzan edo Etumeta AEK euskaltegian. Fitxa bat

betetzea baino ez da. Bertan emandako datuekin, “ikusten dugu ze taldeetan egon zaitezkeen, zein talde datorren zurekin bat, ordutegi, profil eta abarri dagokionez”.

Hortik aurrera, bidelagun eta bidelarien taldea osatzen da. Aipatzekoa, bidelagunen parte hartzea. Gutxienez euskara menderatzen duen boluntario bat behar izaten da talde bakoitzean. Une honetan “talde guztiek dute bidelagunen bat. Baina animatzen diren guztiak ongi etorriak izango dira”. Talde bakoitzak bigarren laguntzaile bat izanez gero hobe. “Batek kale egiten badu, taldeak aurrera egiten du ezer aldatu gabe eta pribilegio bat

da bidelariarentzat”.

“Azkenerako koadrilatxo bat sortzen dute herrian”

Dabiltzanak behintzat oso gustura ari dira. “Probatzen duenak, gero gustura jarraitzen du”. Izatez, irailetik ekainera dinamizatzen dute Mintzalagun egitasmua euskaltegiak, NOAUA!-k eta Udalak. Baina badira opor garaian etenik hartzen ez duten mintzalagun taldeak. “Haiek adosten dute hitzordua, eta plana. Askok etenik ere ez dute egiten. Bi taldeetan udan ere astero elkartzeko segitzen dute”.

Azkenerako, solaskide taldeak baino gehiago baitira. Sarritan aurrez harremantzen ez ziren herritarrak, elkar ezagutzen joan eta euskara hartuemanetarako hizkuntza gisara baliatuta, “azkenerako koadrilatxo bat sortzen dute herrian”. Mintzalagun aberasgarria dugu beraz, “partaideentzat, herriarentzat eta euskararentzat batez ere”.

Nafarroako erriberan Korrika aritzeko deia

Apirilaren 4tik 5erako goizalderako Nafarroako erriberan 21. Korrikan parte hartzeko “euskararen alde korrika egin eta Korrika laguntzea helburu duen zoro zoragarrien usurbildar taldea osatu nahi da”. Animatzen zarenok, helbide honetara idatzi dezakezue: zorozaragariak.usurbil@gmail.com

Ostiral honetan, Korrika Batzordearen bilera

Badator 21. Korrika, apirilaren 12an igaroko da gure artetik. Euskararen aldeko lasterketa girote lanetarako osatu da Korrika Batzordea. Ostiral honetarako (otsailak 15) deitu dute bigarren bilera, 18:30etan Etumeta AEK euskaltegian. Aurreko lan saioan biltzen hasitako ekar-

penak zehazten segiko dute. Bilera irekia izango da, herritar nahiz eragile ororentzat.

Korrika laguntzaile

Ez ahaztu Korrika babesteko bide gehiago badituzuela. Arropa erosi, Korrika Laguntzailea kanpainarekin bat egin edota euskararen aldeko mar-

txako ibilbideko kilometroak eskuratzeko aukera duzu euskaltegian bertan.

Informazio gehiagorako:

Nagusia, 43

607 609 379

usurbil@aekeus

aekeus

munterri.blogspot.com.es

korrika.eus

Usurbilgo jaietarako ekarpenak egiteko deia

Egutegi aldetik ez da al-dakatarik aurtengoan. Jai Batzordeak otsailaren 5ean eginiko lehen bilera finkatu zituen Usurbilgo jaien egunak; zenbat eta zeintzuk izango diren. 2019ko Santixabelek bost eguneko iraupena izango dute, ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko ditugu.

Jaien hausnarketa plazara

Egunak finkatuta, antolaketa prozesuari buruz luze zabal jardun zuten lehen bilera honetan parte hartu zuten herri eragileetako ordezkari ezberdinek. Azken urteon ildo beretik, orri zuri batetik abiatu eta bideratu nahi dituzte Santixabeletako prestaketa lanak. Herritik herriarentzat, eta Jai Batzordearen altzoan, elkarla-



Otsailaren 27an batuko dira 18:00etatik aurrera Potxoenean. 2019ko jaiak bost eguneko iraupena izango dute, ekainaren 28tik uztailearen 2ra.

nean.

Orri zuri horren abiapuntua, ekarpenak biltzea izango da. Joan den asteko bilera ostean, zer nolako festak izan nahi ditugun hausnartzeko hiru asteko epea zabaldu zuten Jai Batzordeak. Gogoeta prozesu hau herriko taldeeta-

ra zabaldu nahi dute, baina ez soilik herri eragileen eremura, haratago baizik; plazara, jendartera. Santixabelei buruz pentsatu eta hitz egitea sustatu nahi dute herrian. Eta hausnarketa zein elkarrizketa prozesu honetatik datozen festetarako ekarpen eta proposamenak

biltzea.

Hurrengo bilera

Asteotan herriko taldeetan, kalean, jendartean bildutako proposamen eta ekarpen guztiok Jai Batzordearen bigarren bilera aurkeztu eta aztertuko dituzte. Hemen hitzordua; otsailaren 27an bilduko da berriz Jai Batzordea, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Proposamenok aurkeztu eta gutxinaka, egitarauan kokatzen hasi asmo dute bigarren saio horretan. Gogoan izan, batzorde hau dela festen inguruan hitz egin, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko gunea. Bilera hauek irekiak izan ohi dira, festen antolakuntzan parte hartu nahi duen herri eragile eta herritar ororentzat.

BAZKIDEEN TXOKOA

Otsailaren 21ean ZOZKETATUKO dugu:

NOAUAREKIN
TXOTXI!

URDAIRA
SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara. Opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus



Lizarralde
ORTOPEDIA

Bizi kalitatea hobetuz

Astelehenetik ostiralera: 09:15-13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 10:30-13:00

ALOKAIRUAN:
gurpildun
aulkiak,
ohe artikulatuak

 Teknikari ortopeda kontsulta

 Arreta pertsonal eta espezializatua

 Online eta telefono bidezko aholkularitza

 Salmenta ondorengo zerbitzua

 Etxera banaketa

 Eskailera igogailuen instalazioa

 Komun eta etxebizitzaren egokitzapena

 Diru-laguntzen aholkularitza eta tramitazioan laguntza

 Produktu ortopedikoen salmenta eta aholkularitza

 Zapata eta ortesi gama zabala

Lizarralde Ortopedia
Kazkazuri plaza 1 - behea
20180 Oiartzun

Tel: 943 543 585 Mugikorra: 688 678 583
andoni@lizarraldeortopedia.eus
www.lizarraldeortopedia.eus

Otsailak 21
osteguna
18:30

Usurbil
Sutegin

Solasaldia
Arnaldo
Otegiarekin

Mertxe Aizpurua gidari

ehbildu

Usurbilgo adinekoen egoitza berria, 2021erako martxan

A spaldiko proiektua gauzatzear da; Usurbilek adineko egoitza berria izango du etorkizunean. Proiektuaren ezaugarriak eta epeak finkatu ditu jada Gipuzkoako Foru Aldundiak. Urte honetako udazkenean hasiko lirateke lanak, eta aipatu moduan, bi urte barru gunea martxan egongo litzateke Kalezarren, garai bateko monjen konbentuaren lur eremuan.

Hala iragarri du Foru Aldundiak, berritzaile eta aitzindari gisa definitu duen proiektu honen inguruan eginiko aurkezpenean. “Ziur gaude etorkizuneko egoitzak, Gipuzkoan eta mundu mailan, Usurbilekoak bezalakoak izango direla”, Ahaldun Nagusi Markel Olanoren hitzetan. Adinberri zahartze osasuntsuaren inguruko estrategiaren baitan kokatzen du Aldundiak Usurbilgo egoitza berria edota Pasaian eraikiko dutena. “Paraleloan doaz bi egoitza horiek eta horrek esan nahi duena da Adinberri estrategiak bi esperientzia aurreratu eta aitzindari izango dituela. Horrek etorkizunean egoitza guztiek ikuspegi berdina jorrazteko balioko du”, Ahaldun Nagusiaren esanetan.

Etxean sentiarazteko egoitza
Ospitale baten egitura duten egoitzen eredutik urrundu eta Kalezarko guneko erabiltzaileak etxean bezala sentiarazi nahi da; irizpide hau kontuan hartuta diseinatu dute egoitza. Hortxe proiektuaren berritasuna. “Gure helburu nagusia, pertsona etxean bezala sentiaraztea da”, Olanok zehaztu duenez. Ildo beretik mintzatu da, proiektuaren aurkezpenean parte hartutako Matia Fundaziozko zuzendari nagusi Ge-



“Ziur gaude etorkizuneko egoitzak, Gipuzkoan eta mundu mailan, Usurbilgoak bezalakoak izango direla”, Markel Olano Ahaldun Nagusiaren esanetan.

MARKEL OLANO

“Estali gabeko eskaera gehien Buruntzaldean dago. Egoitza honek behar handia duen bailara bati egingo dio ekarpena”

rardo Munarriz ere. Urte hau amaitzerako eraikitze bidean izango den egitasmo honen lau ardatz nagusiak aurreratu ditu. Egoitza berriari esker, pertsonak bere bizi proiektuari segida eman ahal izatea; nor bere nortasuna mantendu ahal izatea; harremantzeko ingurune hurbila izatea ahalbidetu eta norberataz arduratuko diren profesionalak izatea; eta ekintzak. Egoitza berriaren “arkitektura horretara egokitu behar da”, dio Munarrizek. Proiektu berritzaile honen atzean, urteetako ezagutzatza, proiektu eta ikerketak daukela nabarmentzen du.

Egoitza berriak etorkizunean hazten joango den behar bati erantzuten lagundu nahi dio. “Lurralde orekaren ikuspegitik, Buruntzaldean estali gabeko eskaera gehien zonalde honetan dago. Egoitza honek behar handia duen bailara bati egingo dio ekarpena”, Olanoren hitzetan.

Etorkizunera egokitzen
Aldundiaren aurreikuspenen

arabera, 2031rako Gipuzkoako 10.000 pertsona baino gehiago egon daitezke dependentzia egoeran. Pasaia eta Irungoekin batera, Kalezarreko egoitza berriarekin, Diputazioaren esanetan, “Gipuzkoa etorkizunean izango diren beharretara egokitzen ari da”.

Zentzu horretan, zahartze aktiboaren aldeko estrategia garatzea ezinbestekotzat jotzen du Foru Aldundiak, baita etorkizuneko erronkei aurre egiteko Foru Aldundiaren, Matia Fundazioaren eta gizarte politiketako entitateekin bideratu beharreko elkarlana sustatzea. “Gipuzkoako gizarte politiken kudeaketaren muina eta oinarria hor dago. Egoitza hau eraikitzearekin batera, are gehiago estutuko da elkarlan hori”, Olanoren hitzetan.

127 plaza izango ditu

- Lanen hasiera (aurreikuspena): 2019ko udazkena.
- Lanen amaiera (aurreikuspena): 2021.
- Inbertsioa: 14 milioi euro (2,3 milioi Foru Aldundiak, gainerakoa Matia Fundazioak).
- Bizikidetzatza unitate kopurua: 18.
- Plaza kopurua: 127.
- Sustatzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Matia Fundazioa, Usurbilgo Udala.

Usurbilgo EAJ-PNV: “Egoitza berria aitzindari izango da”

Usurbilgo EAJ udal taldeak babes osoa adierazi dio Matia Fundazioak



Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera aurkeztu berri duen egitasmoari. “Pozten gara Usurbilzatea adineko pertsonentzat etorkizuneko egoitza-eredua izango den eraikina hartuko duen herria”.

Josune Urkola EAJ-PNVko bozeramale eta alkategaiak adierazi duenez, “Estatuan eta Gipuzkoan aitzindari izango da eta orain udalari dagokio Matiarri laguntza guztia eskaintzea egoitza eraikitzeke eta 2021 urtearen amaieran martxan egon dadin”. Ildo horretan, azpimarratu nahi du, aurtengo aurrekontuetan Kalezar auzoko errepidearen zatia urbanizatzearen partida talde jeltzalearen ideia izan zela, “kale honen azken zatian eraikiko delako egoitza hau eta beharrezkoa delako bertara doan errepidea urbanizatzea eta argizatzea, joan-etorriak erosoagoak eta seguruagoak izan daitezten. Argi eta garbi dago beharrezkoa dela”.

Lankidetzatza publiko-pribatuaren alde

13,8 milioi euroko inbertsioa eskatuko du eraikina eta lankidetzatza publiko-pribatuaren alde agertu da EAJ. Zentzu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia, Matia Fundazioa eta Usurbilgo Udalaren arteko elkarlana proposatu du. Talde jeltzalea bide lagun izango dela dio, “etxean bezala bizitzea bermatuko duen egoitza aitzindaria errealtate bilakatu dadin”.

Udala: “Zahartzaroari modu kolektiboagoan aurre egiteko plangintza dugu esku artean”

Foru Aldundiak eta Matia Fundazioak adinekoen egoitza berria eta berri-tzailea Usurbilen kokatzea Udalaren eta usurbildarren lorpena dela gogorarazi du Usurbilgo Udalak ohar bidez, “izan ere, urte luzeetan usurbildarrek eta gobernu-talde ezberdinek egin duten lanaren ondorioz gauzatu ahal izango da gure herrian bertan”.

Udalak gogorarazi duenez, legealdi hasieran proiektu honi berriz heltzeko aukera suertatu zenetik gobernu-taldearen agendan eta gobernu-programan presente egon den proiektua izan da. “Eragiten aritu gara, lana latz egin dugu, proiektua gauza zedin”. Horren adibide gisa, jubilatuek bultzatuta, usurbildarren artean jasotako 2.000tik gora sinadurak, “gaiari heltzeko, herri-mobilizazio hura erabakigarria izan zen”.

Urrats erabakigarri gehiago iragarri ditu Udalak asteotarako. Hurrengo, hilabete amaierako udalbatzaren osoko bilkuran. “Proiektua ahalbidetzen duen plan berezia onartuko du”. Zenbait xehetasun aurreratu ditu Udalak. “Hirigintzaren ikuspegitik, zerbitzu sozial bati begirako proiektua da, etxebizitzaren negoziotik apartekoa. Gainera, Kalezarreko inguruarentzat urbanizazio atsegina izango da eta mugikortasuna nabarmen hobetzeko aukerak ekarriko ditu”.

Inkesta, 70 urtetik gorakoan artean

Horrekin batera, 70 urte edo gehiago izan eta bakarrik bizi diren 180 herritarren artean inkesta bat egitekoa da Udala hurrengo asteotan, kolektibo honen beharrak identifikatu



Udalak gogorarazi duenez, legealdi hasieran proiektu honi berriz heltzeko aukera suertatu zenetik gobernu-taldearen agendan eta gobernu-programan presente egon den proiektua izan da.

UDAL GOBERNU TALDEA

“Hirigintza ikuspegitik, zerbitzu sozial bati begirako proiektua da. Gainera, Kalezarreko inguruarentzat urbanizazio atsegina izango da eta mugikortasuna nabarmen hobetzeko aukerak ekarriko ditu”

eta Udalak aurrera begira bultzatu asmo dituen zerbitzu eta egitasmoetarako informazio hau guztia aintzakotzat hartzeko eta sarritan azaleratzen diren bakardade eta zaintza arazoei heltzeko.

Udalak gogoraraten duenez, “adineko asko bakarrik bizi dira”. Haietako “asko eta asko emakume alargunak. Bakardadeak, gainera, jakin badakigu zer dakarren berarekin: segurtasun eza, eta apurka-apurka inguruari gero eta beldur handiagoa izatea, eta, ondorioz, norbera bere etxean isolatzea. Bestetik, elkar-loturik, zaintzaren gaia dago. Oraindik orain emakumeen ardurapean geratzen da, eta ezinbestekotzat du Udalak bes-

telako zaintza-eredu batzuk sustatzea, gizarte parekideagoa eta justuagoa eraikitzeko norabidean”.

Honekin guztiarekin, zahartzaroari ikuspegi sozialetik planteamendu integrala ari da osatzen Udala, “Usurbiletik Usurbilera. Helburua, zerbitzu eta aukera ezberdinak osatu eta eskaintzea da, menpekotasunik ez dutenentzat zein menpekotasun maila ezberdinak dituztenentzat”. Arazoak aukera bihurtu eta gaiari osotasunean erantzun, “konponbide integrala” eman nahi dio.

Egun martxan diren zerbitzuak (jubilatutako etxeak, etxez etxeko laguntza zerbitzua, asteazkenetako ibilbide osatutakoak, eguneko arreta zerbitzua...) indartzearekin batera, Ugartondoko urbanizazio berriaren kokatuko den Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioaren egitasmoa eta Usurbilgo gerontologiko berriaren proiektua ditu eskuarte. “Plangintza eta ikuspegi orokorrago batean sartzen diren proiektuak dira. Zahartzaroaren dohainak geure egin eta zahartzaroari modu kolektiboagoan aurre egiteko plan-

gintza dugu esku artean, eta halaber, zaintza-eredu berriak sustatzen ari gara, elkarren arteko zaintza esate baterako, zaintza emakumeen ardura eskusibo izateari utz diezaion”.

Txirikorda, definitze prozesuko hirugarren saioa

Etorkizunean Ugartondoko urbanizazio berriaren kokatuko den belaunaldi artoko etxebizitza komunitarioaren ezaugarri fisikoak nahiz bizikidetzaren mailakoak definitzen ari dira asteotan, bertako erabiltzaile potentzialak diren adineko eta gazteak, Usurbilgo Udalak sustatu eta Hiritik At Kooperatiba dinamizatzen ari den parte hartze prozesuan. Larunbat honetan (otsailak 16) Txirikorda proiektua zehazten segitzeko hirugarren saioa, 10:30-12:30 artean Potxoenean. “Espazioaren diseinua” izango dute lanke-tarako gaia.

Erraustegiaren aurkako taldeen eragina kontrolatzeko komunikazio-plan konfidentziala argitara

Eskandalu hutsa da, hitzokin laburbildu zuen Joseba Belaustegik GuraSOSe igandean (otsailak 10) Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean egin zuen ekitaldian plazaraturikoa. Dokumentu konfidentzial bat eman zuten argitara; erraustegiaren kontratua publiko egitearekin batera, orain arte ezkutuan egon den komunikazio-plan bat.

Nork eta, Zubietako erraustegiaren enpresa eraikitzaileek (Urbaser eta Meridiam nagusiki, %45 eta %51ko parte hartzea dute hurrenez hurren) beraiek diseinaturiko plana, enpresek aukeraturiko “komunikazio talde” batek egina, helburu argi batekin; Zubietako erraustegiaren komunikazio estrategia zuzentzea. Antza, “1994tik, hondakinen gaikako bilketari buruzko lehen kanpaina egin zuenetik, herrialdeko hiri hondakinak kudeatzeko Gipuzkoan garatu diren proiektu eta azpiegitura ia guztien komunikazioan parte hartu du” GuraSOSen esanetan.

Lehenago aipatu izan den moduan, gurasoen elkarteak gogorarazten duenez, “Urbaser Madrilgo erkidegoan argitara emandako ustelkeria kasu handien (Lezo kasua adibidez) erdigunean dago. Meridiam enpresa Parisen egoitza izan eta aipaturikoa bezalako azpiegitura proiektuak mundu osoan finantzatzen diharduen multinazional handietako bat da”.

Aurka daudenak identifikatzea
“Engainu, gezurrezko istorio bat da urte luzez planifikatu eta gaur argitara emango duguna”, zioen Belaustegik. “Horrelako konspiraziorik ezin da egon, onartezina da”, gaineratu zuen. Ezin du egon herritarren aurkako plan bat, GuraSOSen esanetan. Zeresana



“Horrelako konspiraziorik ezin da egon, onartezina da”, hitzok baliatu zituen Joseba Belaustegik aurreko igandeko agerraldian.

GURASOS

“Zerbait esan beharko dute gizarte eragileek, ordezkari politikoek, komunikabideek, osasun munduko langileek eta plan horretan aipatzen diren agente guztiak”

emango duela iragarri zuten. Igandean eman baitzituzten lehen xehetasunak, baina adi, “hurrengo asteotan gehiago jakingo da”. Plazaraturikoaren aurrean argi ziotenez, “zerbait esan beharko dute gizarte eragileek, ordezkari politikoek,

komunikabideek, osasun munduko langileek eta plan horretan aipatzen diren agente guztiak”.

Haiei guztiei GuraSOSe dei egiten die, “gatazka honen konponbidearekin, egiarekin eta osasun zein ingurumen babesarekin bat egin dezaten”.

Aipatu eragile guztiei eragiten diete eta, GuraSOSe eza-gutzera emandako “Ingurumen Kultura eta Komunikazio Plana” izeneko dokumentu konfidentzialak. “Iritzi publikoaren kudeaketa egokiak”, iritzi publikoa kontrolpean izateak alegia, gatazkak gutxitu eta lanak

erraztuko dituela dioen planak erraustegiaren aurka diren taldeen eragina ahal bezainbeste murriztea du helburu, tartean, “herritarren eta talde ekologistenak”. Eta gainerakoak gai honetan pasibo bilakatzea, “orain arte axolagabeak eta aurkari pasiboak izan diren kolektiboen babes handitzea”.

Eta identifikatzea. Adi, guztiok kontuan hartu beharreko asmoak agerian uzten ditu komunikazio plan honek. “Ezaugarri hauek dituen prozesu batean beharrezkoa da iritzi liderrak eta eragin handiko gutxiengoak identifikatzea. Bere posizioagatik iritzi publikoan eragiteko gaitasuna duten kolektiboak alegia. Beharrezkoa da haietako bakoitzaren eta haien jarreraren profil bat izatea, haien babes lortzeko, edo pasibotasun jarrera gutxienik”, dio GuraSOSe argitara emandako komunikazio planak.

Identifikatu beharrekoak nortzuk diren ere argitara ematen du GuraSOSe. “Komunikabideetako profesionaleri, osasun nahiz akademia munduko aditu eta profesionaleri, ekonomia nahiz politika munduko lider adierazgarriari, edo mugimendu sozialetako pertsona aktiboari buruz” ari dira.

Atzera bueltarik ez duen errealitatea eraikitzea

Aipatu planeko komunikazio helburuetan, “oposizio taldeek erabilitako argumentuei erantzungo dien diskurtsoa egituratzea” gehien nabarmentzen den alderdietako bat da GuraSOSen esanetan, gai hau politikoki erabiltzeari sinesgarritasuna kentzea ere plan honen

erronketako bat da.

Eta adi, proiektua bera gipuzkoarren gehiengoak babesurikoa, ezarritakoa eta atzera bueltarik gabekoa izatea, hau errealitate baten moduan ikus dezagun estrategia bat gartzatzea proposatzen du informazio plan baten laguntzaz.

Planak estrategikotzat jo-

tzen du komunikazioaren eremuan bideratu beharreko lanketa, aitortzen baitu erraustegia edo Foru Aldundiak deituriko Gipuzkoako Ingurumen Gunea “ezartzea konplexua dela, bai edukien baita horri lotuak dauden arriskuen polemika eta gizar-te gatazkagatik”.

Premisa, “jada hartutako erabakien inguruko eztabaida berriz ez piztea”

Gipuzkoarren parte hartzea ere jorratzen du komunikazio plan honek. Parte hartze eredu mugatua planteatzen du, “plantei lotutako informazio sarbidean; segurtasun planei iradokizunak egiteko aukeran”; funtzionamendu, emisio eta emaitzen gaineko kontrolean; ingurune sozialarekin solaskidearen papera hartzean” zentratutakoa.

“Jarraipen eta Informaziorako Herri Kontseilua” izeneko organo bat sortzea ere aurreikusten du, nahiz horren berri gehiagorik izan ez den. Halere GuraSOSetik ohartarazi dutenez, “martxan jarri izan balitz, kontseilu honen bi premisetako bat “jada hartutako erabakien inguruko eztabaida berriz ez piztea” zen”.

Erraustegiaren ondoan, Interpretaziorako gunea

Erraustegiak gizartean eragiten duen errezeloz jabetuta, “ate irekien egunak, egokitutako irtenbideak proposatu eta herritarren kezka lehen eskutik tratatzeko solasal-



Enpresa eraikitzaileek sustaturiko komunikazio planaren berri izan du GuraSOsek.

BALIZKO KOMUNIKAZIO PLANA

Erraustegiak gizartean eragiten duen errezeloz jabetuta, “ate irekien egunak, egokitutako irtenbideak proposatu eta herritarren kezka lehen eskutik tratatzeko solasaldiak” antolatzea proposatzen du

diak” antolatzea proposatzen du. Zeregin horietarako baliatzea proposatzen dute baita, erraustegiaren ondoan

eraikiko duten ingurumen interpretaziorako gunea ere. Gunea, hondakinak erraustearekin kontrajarriak dauden energia berriztagarri, klima aldaketa, ekonomia zirkular edo ikerketa, garapen eta berrikuntza arloekin lotutako erakusketak antolatzeko baliatu nahi lukete eta bertako jardueren jendaurreko diskurtsoetan “konnotazio negatiboekin jositako hondakinak bezalako kontzeptuak baliabideetan bilakatuko lirateke”. Alegia, “CO2 emisioak saihesteko energia berriztagarrien erabileraren garrantziak ordezkatzeko luke”.

“Bukaeraren hasiera”

Plan hau eskuartean izanda, argi zioen GuraSOsek, ia norik izango duen konfiantza “Urbaser erraustegia ustiatzen hasitakoan autoritate osoz, kontrol publikorik gabe”. Ildo beretik zioen, “plana konfidentziala baldin bada gu guztiok engainatzeko, nola izango dugu bermea, erraustegian gerta daitezkeen intzidentzien gaineko informazioa eskainiko digutela adibidez. Bermea, sinesgarritasuna eta konfiantza hausten bada, proiektuak bere oinarrietan huts egiten du eta proiektuaren eraginpean diren herritarrek ezin dute onartu”.

GuraSOsek gogoraraten duenez, “zenbat eta gehiago jakin, Zubietan martxan jarri nahi diguten mamua martxan ez jartzeko aukera gehiago dago. Benetan diongu. Horregatik garrantzitsua da jakitea. Gehiago jakinda, ez dugu onartuko inolaz ere gure haurren osasuna arriskuan jartzea”.

“Bukaeraren hasiera” ikusten hasi behar gara eta plazaraturikoarekin, datorren otsailaren 23ko manifestazioan, “Donostia jendez bete behar dugu”.

Otsailaren 23ko manifestazioaren aldeko olatua handitzen doa

GuraSOsek orain arte ezkutuaren zen Zubietako erraustegiaren kontratua ezagutzera eman zuen igande eguerdian, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean egin zuen ekitaldian. Hitzordua bera, otsailaren 23rako adostasunaren alde Donostian (17:00, Antiguako tuneletik) deitua duten manifestazioarekin bat egiteko ere baliatu zuen GuraSOsek.

Gogoan izan, abian duela, otsailaren 23ko Donostiako mobilizazio handiari babesa emateko atxikimendu bilke-

ta kanpaina. Adostasunaren keinua eginez, lantokietan, lagun artean, familian... argazkiak atera eta GuraSOSi (gurasos.org web orrialdera) helarazteko deia egina dute. Aipatu web orrialdean sartzen bazarete, oso modu erraz eta praktikoa irago ditzakezue argazkiak. Argazkia ze herritatik bidaltzen duzuen eta zer argazki mota den zehaztu eta irudia erantsi, hortxe egin beharrekoa. Dagoeneko argazki mordo ari da biltzen guraso taldea, web orrialdean bertan

dituzue ikusgai. Handitzen doan adostasunaren aldeko olatu erraldoi horretako argazki bildumara batuko da orain, otsailaren 10eko Lasarteko ekitaldira bertaraturikoek hitzorduaren amaieran atera zuten talde irudi erraldoia.

“Amesgaiztotik esnatu!”

Otsailaren 23ko mobilizazioari begira, bideoa ere aurkeztu zuen GuraSOsek igandean Lasarten. Aire garbia arnastu ezin duten maskaradun haurrak ageri dira

eguneroko bizimoduan; maskarekin bazkaltzen, ikastolan, kalean... Ama baten amesgaiztoa da guztia. Amesgaiztotik esnatu eta berehala doa lotan den semearengana. Eta segidan, honako hitzak entzun daitezke. “Akordioa da soilik etorkizun osasuntsu eta demokratikoaren bermea. Deneren artean Gipuzkoa osasuntsuago baten alde, esan baietz adostasunari, osasunari”, otsailaren 23ko manifestazioan parte hartzeko gonbita luzatzearekin batera.

“Iruzur eta gezur handi baten gainean eraikia dago erraustegia”

Eraikitzen ari eta laster martxan jartzen hasi nahi duten Zubietako erraustegiaren kontratuaren xehetasunak argitara eman zituen GuraSOSeK, igandean Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean egin zuen ekitaldian.

Gogoan izan, Europan zenbait ekimen juridiko abiatu zituela iaz, “kontratazio arloan izandako arau-hausteagatik, eta ingurumenaren eta hondakinen arloan parte hartzeko eta justizian sarbidea izateko eskubideak urratzeagatik”. Horrekin batera, Europako Parlamentura zenbait kexa bideratu zituen, “defizita eta zorpetze publikoa kontrolatzeko eta zuzentzeko mekanismoak aktibatzea” eskatzeko.

“Ez da kontratu hoberena, helburuetara ongien egokitzen dena baizik”

Aipatu moduan, igandeko Lasarteko ekitaldian, erraustegiaren kontratuaren gaineko xehetasunak argitara eman zituen GuraSOSeK. Kontratu honen



Otsailaren 23rako adostasunaren aldeko manifestazioa deitu du GuraSOSeK. Donostiako Antiguoko tuneletik abiatuko da, arratsaldeko 17:00etan.

GURASOS

**Foru Aldundiko
Aurrekontu Egonkortasun
eta Finantza
Sostengarritasunerako
Zuzendaritzaren 2016ko
ekainaren 9ko txostenak
dio, “apirilaren 27ko
2/2012 Lege Organikoak
ezarritako mugak
ezarritakoa ez duela
betetzen”**

edukiak biltzen duena plaza-raturaz ziotenez, “ez da kontratu hoberena, helburuetara ongien

egokitzen dena baizik”.

Kontratuak agerian uzten duen alderdietako bat, hondakinen kudeaketa zerbitzua pribatizatzeko erraustegia sustatu nahi duten agintariak emandako urratsa da. Bere garaian, Zubietako gaineko planta eraikitzeak eragindako zorrari Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak zuzenean, mailegu batekin aurre egiteko aukera baztertu behar izan zen. Igandeko Lasarteko ekitaldian, GuraSOSeK erakutsitako dokumentazioaren arabera, Foru Aldundiko Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Sos-

tengarritasunerako Zuzendaritzaren 2016ko ekainaren 9ko txostenak dio, “apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak ezarritako mugak ezarritakoa ez duela betetzen”.

Gastua, defizita ala zorra

Alegia, GuraSOSeK kide Joseba Belaustegik zioenez, erraustegia bultzatu nahi zuten agintariei esaten zaiena da “ezin da eraiki hauteskundeetan hitz eman zenuten erraustegia”. Zubietako gaineko azpiegitura eraiki ahal izateko alternatibak bilatzeari ekin zioten orduan, baina helburu argi batekin; hurrengo 35 urteotan, gipuzkoarron gain hartu beharko dugun milioika eurotako zorra zenbatua izatea saihestu nahi zuten egitasmo honen bultzatzaileak. “Zor publikoa gure gain hartzen dugu, baina zer da garrantzitsuen? Gastu hori guztia zenbatua ez izatea, defizit, zor gisa. Alegia, helburua “erraustegia eraiki ahal izateko norbaitek zor guztia bere gain hartzea” zen, zor publiko gisa zenbatua izan ez zedin.

Gipuzkoarrak zorpetuak, enpresa eraikitzaileek galera arriskurik ez

Testuinguru honetan, Gipuzkoa 35 urteko milioika eurotako zorretan sartzeko bidea jorratzen hasi ziren, pribatizazioaren bidetik. Erabaki honen ondorioetako bat; gipuzkoarron poltsikoei dagokienez, “400 milioi euro gehiago ordainduko ditugu”.

Horrekin batera, erraustegiaren gaineko benetako kontrola dutenak enpresa eraikitzaileak direla gogora-

razten du GuraSOSeK. Hondakinen kudeaketa pribatizatu dutela salatzen dute. Zubietako gaineko azpiegiturekin interes pribatua lehenetsi dela azpimarratzen dute, “herritarron osasuna arriskuan” jarriz. Honen kontrol publikoaren galera dakar gipuzkoarrentzat, aldiz, diru-galera arriskurik ez erraustegia eraiki eta ustiatuko duten enpresentzat, “obra libreki ustiatzeko aukera ematen

die” erraustegiaren kontratuak. GuraSOSeK ohartarazten zenez, “Gipuzkoarron hondakinekin ez baditugu betetzen erraustegiko labeak, azpiegitura kanpoko hondakinak erretzen ustiatu ahalko dute”.

“Kontratuak kalitate demokratiko baxukoa da”

Argi zioten, kontratuak “opaku da, kalitate demokratiko baxukoa”, GuraSOSeK

esanetan, aipatu kontratuak, datozen 35 urteotan hondakinen kudeaketa politikak aldatzeko aukerak alboratzea dakarrelako.

Horregatik zioen igandean Lasarten GuraSOSeK, “iruzur eta gezur handi baten gainean eraikia dago erraustegia”. GuraSOSeK Europan jada salatua duena. “Ia zer gertatzen den”, zioten Lasarteko igandeko ekitaldian.

Zubieta eta Lasarte senidetuko dituzten Euskal Inauteriak

Mozorro festa ate joka dugu! Gogoan izan, Usurbilen martxoaren 2rako ari gara antolatzen Inauteri Festa. Egitarau zehatza astebete barruko NOAA!n argitaratuko dugu. Aurtengo gaia; jolasak! Giro-tzen hasteko, astebete lehenago ospatuko dira Zubieta eta Lasarte senidetuko dituen Euskal Inauteriak. Hemen egitaraua:

Otsailak 23, larunbata

- 11:00-13:00 Sagardotegi kale-tik abiatuta, elkarteetan zehar Puska Bila.
- 16:30 Zubietako plazan ekitaldia.
- 16:45 Zubietatik Okendora kalejira.
- 17:00 Lasartearren harrera: lasarte oriatarrak zubietarrei gonbidapen dantza eta zubietarren erantzuna.



Egun osoko festa izango da otsailaren 23koa.

AZAROAK 23

Goizeko 11:00etan abiatuko dira eta elkarteetan zehar ibiliko dira puska bila

- 17:15 Zubietarren eta lasarte-oriatarren senidetze dan-

tzaldia.

- 17:30 Kalejira herritik.
 - 19:00 Erromeria eta suaren ekitaldi berritua.
 - Amaitzeko, txokolatada goxoa plazan.
- Antolatzaileak: Zubietako herria eta Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkarteak.

Udal diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik

Zabalik da jada udal diru-laguntza deialdira eskabideak aurkezteko epea. Udalak Udaberri hilabetekariaren bidez iragarri duenez, guztira 212.400 euro banatuko ditu diru-laguntzetan. Laguntza lerro hauek eta lerro bakoitzerako kopuruok iragarri ditu:

- Kultura: 80.000 euro.
- Kirola: 50.000 euro.
- Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzen dituzten kirol-jarduerak: 5.000 euro.
- Kirol egokitua: 3.000 euro.

- Federatu gabeko kirol elkar-teentzat: 1.000 euro.
- Ingurumena 5.000 euro.
- Nekazaritza eta abeltzaintza: 15.000 euro.
- Gizartegintza: 12.000 euro.
- Deserrotze eta bazterketa arriskuan dauden pertsonen senideentzako laguntzak: 4.000 euro.
- Igogailuak instalatzeko laguntzak: 10.000 euro.
- Hutsik dauden lokaletan jarduera berri bat abian jartzeko lokalen alokairurako laguntzak.

Eskabideak martxoaren 12ra arte bideratuko ahalko dira

Usurbilgo Udalak onartuak dituen 2019rako udal diru-laguntzen oinarrien berri zehatzago, otsailaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo usurbil.eus atarian jaso dezakezue. Eskabideak martxoaren 12ra arte bideratu ahalko dira, lokal hutsak biziberritzeko diru-laguntza deialdian izan ezik. Kasu honetan, irailaren 30era arteko epea izango baita.

Bihurri ludotekako bazkidetza

2018ko kuota ordaintzeko epea otsailaren 28an amaituko da. “Bazkide berriek 30 euro pagatu behar dituzte eta jada bazkide direnek 10 euro”. Ordainketa ondoko kontu zenbaki honetan egin behar da: ES3230080259103545905527 (Rural Kutxa).

Ludotekako giltza

Ludoteka utzi duten gurasoek giltza itzuli beharko dute. “Ludotekako bazkide izateari uzten dioten familiei giltza itzuli dezatela eskatzen diegu”, Bihurriko kideek aditzera eman diguten.

Zalantzak argitzeko edo proposamenak egiteko, ludotekako tabloira jo dezakezue edo ondoko helbidera mezua bidali: bihuririludoteka@gmail.com

“Mugikorrek behar ditugu, Ugandako

haurrei laguntzeko”

Ziortzako DBH4ko ikasleek Mukwano-Lagun elkarteari laguntzeko kanpaina abiarazi dute. “2006. urtetik, elkarte hau Bujagali izeneko Ugandako herririk txiki batetako biztanleei laguntzen ari da”. Eskuko telefonoak batu nahi dituzte bertara igortzeko. Asteburu honetan egingo dute bilketa lana Sutegin.

Egoera onean diren mugikorrek

“Funtzionatzen duten eta egoera onean dauden mugikorrek (Internetarako sarbidea dutenak)” behar dituzte.

Sutegira hurbiltzeko egunak

- Otsailak 16 larunbata, 18.30-20.00.
- Otsailak 17 igandea, 12.00-14.00.

Aginagako urak ere, saneamendu sarean egotetik hurbilago

Añarbe Mankomunitateak 2010erako inbertsio-planetan jada aurreikusten zuen proiektuetako bat gauzatzeko bidean dela berri eman du Usurbilgo Udalak ohar bidez. Ur zikinen gaiari buruz ari gara. Gogoan izan, azken urteotan egindako obrei esker, 2016az geroztik Usurbilgo ur zikin gehienak kolektore bidez Loiolako araztegiara bidertzen direla, eta ordura arte egiten zen moduan, erriora. Ur zikinen saneamendu sare horretatik kanpo geratu ziren orde, Txokoalde-Aginaga inguruak, baita Zubietako zenbait zonalde ere.

Zubietakoei konponbidea 2017ko udaberrian, Aliri zubia ondoan inauguratu zuten hondakin-uren ponpatze estazio berriarekin eman zitzaizen. Ordutik ordea, Aginaga-Txokoaldeko ur zikinak saneamendu sarera batzea falta zen. Zonalde honetako ur zikinak erriotik desbidertzea aspalditik eskatua zion Udalak Añarbeko Uren Mankomunitateari. Orain, “Usurbilgo udal-gobernuak, beste udal-ordezkarri batzuekin batera, egindako lan eta presioaren ondorioz lortu da 2019an Aginagako saneamenduari ekitea”, adierazi du Udalak ohar bidez.

Negoiazioei esker, diru partiden gehitzea

Udal gobernu taldetik gogorazten dutenez, besteak beste, EHBilduren babesaren ezinbestekoa izanik, Añarbek joan den urrian Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkezturiko aurrekontu-proiektua atzera bota zuen koalizioak, “urteetan mahai gainean izan diren hainbat proiektuei heltzeko konpromiso faltagatik”. Proiektu horien artean, bi nabarmentzen ziren EHBilduk; Pasaiako Por-



2019an lanak lizitatu beharko dituzte, 2020an hasi eta 2022rako bukatu.

AURTEN HASIKO DIRA

“Usurbilgo udal-gobernuak, beste udal-ordezkarri batzuekin batera egindako lan eta presioaren ondorioz lortu da 2019an Aginagako saneamenduari ekitea”

tua eta Aginagako ur zikinen saneamendua.

Aipatu moduan, bi egitas-mook gauzatzea aurreikusia zuen Añarbek 2010az geroztik, “inbertsio-planetan aurreikusita bazeuden ere, urteotan ez dute urratsik egin proiektuok garatzeko. 2019an beste horrenbeste gerta zitekeela ikusi genuen, ez baitzegoen adina diru-partidarik aurreikusita”, adierazi du Jone Urdanpilleta zinegotziak.

Konpromiso falta hori zenbakitan islatu du Añarbek, EHBilduren esanetan. 2019rako 25.000 euro, 2020rako 175.000 euro, eta 2021erako beste 175.000 euro, aurreikusiak zirenen, “ez zen nahikoa. Gabezia historiko horri erantzun ezean, ez zutela EHBilduren babesik izango argi adierazi genien”, Urdanpilletaren esanetan.

2019an hasi, 2022rako bukatua Aurrekontuak adosteko elkarriketei ekin eta negoziazio ho-

riek aipatu diru kopuru horiek gehitzea ekarri du. Hala, 2019rako 25.000 euro bideratuko ditu Aginagako egitas-mora, 400.000 euro 2020an, 700.000 euro 2021ean eta 305.000 euro 2022an. Inbertsio honen %40a Añarbek finantzatuko du, gainerakoa URA, Uraren Euskal Agentziak.

Egutegia finkatua dago. Usurbilgo Udalak zehaztu duenez, 2019an lanak lizitatu beharko dituzte, 2020an hasi eta 2022rako bukatu.

Hiru fasetan

Aginaga aldeko saneamendu lanok hiru fasetan gauzatuko dituzte. Egitasmo hau hitzarmen orokorrako baten baitan kokatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaur-laritzak, Udalaren esanetan. 61 milioi euro bideratuko dituzte guztira Gipuzkoako uren saneamendura, 2019-21 eta 2021-27 urte artean. Aginagako saneamendu lanen lehen bi faseak 2019-21 artean burutuko dituzte, hirugarrena 2021-27 urte arteko aurreikusia dago. “3. faserako bermeak ere jasota badaude, espero etorkizunean heltzea, izan ere, ingurumenari zor zaion ezinbesteko lehentasuna baita Aginagako saneamendua Oria ibaitik ateratzea”, Urdanpilletaren esanetan.

Mantenu lanak

Artzabalgo zuhaitzian

15 urte dituen Artzabalgo urbanizazioko parkean mantenu lanak egiteko da Usurbilgo Udala egunotan. Ohar bidez, bideratzekoak diren lanen gaineko xehetasunen berri plazaratu dute. “Guztira, 40 bat zuhaitz (parkeko zuhaitzen % 20 inguru) moztea aurreikusten da”. Bi fasetan, “erdiak aurten eta hurrengo urtean, gainerakoak”. Hori bai, “egungo Artzabalgo parkearen xarma, itxura eta izaera mantenduko da, udaberri eta udan itzal estimatuak eskainiz eta udazkenean hosto koloreen festaz gozatuz”.

Artzabalgo parke ederraz gozaten segi ahal izateko ezinbestekotzat jo ditu lanak Udalak. Inguruak egun eza gutzen dugun moduan 15 urte bete dituenean, landatutako astigar basoa hazi egin baita. Horregatik, “beharrezkoa ikusi da mantenu lanak egitea, etorkizunean ere astigar mota ezberdinez osatutako parke bat izan dezagun”.

Mantenu lan ezberdinak bideratuko ditu Udalak, zuhaitz batzuen eta beste egoera aintzakotzat hartuta. “Datozen egunotan, udal zerbitzuek Artzabalgo parkean dauden astigarren bakanketa lanak egingo dituzte, parkea egin zenean erabilitako irizpide bera jarraituz. Zenbait kasutan hazkuntza handia izan duten astigar batzuk moztu egin beharko dira, hazkuntza txikiagoa izan duten baino osasuntsu dauden beste zuhaitzen mesedetan. Beste zenbait kasutan, modu desegokian hazi eta etorkizun urria duten zuhaitz txikiak moztuko dira”.



“Guztira, 40 bat zuhaitz moztea aurreikusten da”.

Mendiko irteerak bueltan dira

Etapa berria hasi du Andatza M.K.K.-k. Otsailaren 11n egin zuten Usurbil, Ernio eta Alkiza lotu zituen lehen txangoa zuzendaritza berriaren gidaritzapean. “Egun ederra pasa dugu gaur”, adierazi dute antolatzaileek sare sozialean bidez zabaldu duten ondoko argazkiarekin batera.

Gogoan izan, baten faltan bi irteera antolatu dituzte hila bete honetarako. Bigarrena larunbat honetarako, federatu nahiz federatu gabeei, mendizale guztiei zuzendua.

Otsailaren 16an, Erlo-Xoxote
“Euskal Herriko mendiak eza-



Otsailaren 11n egin zuten Usurbil, Ernio eta Alkiza lotu zituen irteera.

gutzen” ekimenaren baitan, Erlo-Xoxote ibilaldia osatzera joango dira otsailaren 16an. 7:45ean abiatuko dira Oiar

Kiroldegitik. Izen ematea itxita dago.

Informazio gehiago: andatza.com

Patri Espinar eta Miriam Arrillagak bizirik jarraitzen dute Emakume Master Cup txapelketan

Lehen mailako txapelketan Patri Espinar eta Miriam Arrillagak bizirik jarraitzeko behar beharrezkoa zuten garaipena eskuratu zuten Sodupen. Hori bai, ikaragarri sufritu behar izan zuten Arrate Bergara eta Maider Mendizabal gipuzkoarrei nagusitzeko (14-18). Patri Espinarren ezker gantxoak erabakigarria izan zen partidaren zehar eta Orozkon jokatu den hirugarren jardunaldiko emaitzen zain geratu beharko dugu, aurrera egingo duten bi bikoteen izenak jakiteko.



Eskubitarak, Patri Espinar eta Miriam Arrillaga hurrenez hurren.

Futbola Haranen

Otsailak 16, larunbata

- 09:30 Alebin neskak: Udaregi 5A-Udaregi 6B Udaregi 6A-Urnieta 6
- 10:30 Infantil neskak: Usurbil-Santo Tomas Lizoea
- 11:45 Infantil mutilak: Usurbil B-Ostadar B

Otsailak 17, igandea

- 9:45 Alebinak: Usurbil F.T.-Ostadar S.K.T. Euskalduna-Urnieta
- 11:00 Alebinak: Danena-Hernani
- 12:30 Futbol Eskola 2008: Usurbil F.T.-Danena
- 15:45 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Urnieta K.E. B
- 17:45 Kadete neskak: Usurbil F.T.-Zestoa KB

Eskubaloia

Oiaro kiroldegian

Otsailak 16, larunbata

Eskola Kirola

- 09:30 Alebin mutilak: Udaregi 5A-Langile B Udaregi 5D-Urnieta 5A
- 10:45 Infantil neskak (Diputazio Torneoak): Udaregi B-Irauli
- 12:00 Infantil mutilak (fase finala B-G1): Udaregi B-Ormaiztegi

Usurbil K.E.

- 16:45 Kadete neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Errotabari
- 18:30 Jubenil neskak (Federaziozko Trofeoak): Usurbil K.E.-Tolosa C.F.

Joko Garbi

Zubietan

Otsailak 17, igandea

Igandean (otsailak 17) jokatu da laugarren jardunaldia. Zehazteko dago oraindik, neurketen ordutegia eta lekua:

- Txost 2-Zubieta 1
- Txost 1-Zubieta 3
- Atsedena: Zubieta 2

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ARRANDEGIA
PELLO
ORDUTEGI BERRIA:
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA
9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
17:00-19:30
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrentzear. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m² eta garajeak 22m². 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60.

Alokairuan

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu.

675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokala bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez

da garaje itxia. Prezioa negoziatuzko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekaxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekaxiki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rrorburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administratzen daren beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interes-atua bazaude, deitu 943 361 114 telefono zenbakira, edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguruetakoa kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak

emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Kamarero eta sukaldari laguntzaile behar dira Aratz erretegiaren informazioa: info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarreraren altxaketa. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel. 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorria, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketara, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentzietan pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438



Zorionak Mañel!

Otsailaren 14an 11 urte!! Muxu handi bat etxeko guztien partez!



Zorionak Gorka!

Otsailaren 15ean 9 urte beteko dituzu. Zorionak etxeko partetik. Muxu handi bat eta ondo pasa!



Zorionak Ione!

Otsailaren 14an, 23 urte beteko dituzu... Jarraitu horren alai izaten... 23 muxu handi handi. Aizpea eta familia osoaren partez.



Zorionak Arai!!

Otsailaren 9an 2 urtetxo bete ditugu gure etxeko printzesak, zoragarria zara!!



Zorionak Ander!

Otsailaren 8an, 21 urte bete dituzu... Jarraitu horrelakoa izaten... 21 muxu handi handi. Aizpea eta familia osoaren partez.

Heriotzak

Antonio Mayo Pagola 87 urterekin hil zen otsailaren 9an Aginagan



Agenda otsaila

15 ostirala

- **Hitzaldia: "Maitasunaz gozatzen duten emakume eta gizonak"** 18:30ean Udarregi Ikastolako jangelan.
- **Korrika Batzordearen bilera.** 18:30ean Etumeta AEK euskaltegian.

16 larunbata

- **Mendi irteera, Erlo-Xoxote.** Irteera: 7:45ean Oiardon (aurrez eman behar zen izena).
- **Txirikorda definitzeko prozesu parte hartzailea.** 10:30-12:30 Potxoenean.
- **Sagarrondotik Sagardora ikastaro praktikoa** 10:00-13:00 Potxoenean.

17 igandea

- **Pagolako (Zuberoa) maskaradara irteera** 8:30 irteera Oiardo Kiroldegitik autobusez (izen ematea, otsailaren 8ra arte).

"Maitasunaz gozatzen duten emakume eta gizonak"

Coral Herrera (Madril, 1977) giza zientzien inguruko gaien ikertzaile eta idazlea da eta genero ikuspegitik ondu ditu bere lanak. Ostiral honetan maitasun erromantikoari buruzko hitzaldia eskainiko du Udarregi Ikastolan.

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatu du hitzaldia. Coral Herrera gatzelaniaz arituko da; 18:30ean hasiko du solasaldia.



Coral Herrera madrildarrak hitzaldia eskainiko du ostiral honetan Udarregi Ikastolako jangelan.

Korrika Batzordearen bilera

Apirilaren 12an 14:30-15:30 artean, gure artetik igaroko den 21. Korrika girotzen hasteko, herritarren batzorde irekiaren bigarren bilera. Ostiral honetan, 18:30ean Etumeta AEK euskaltegian. Otsailaren 1eko bileran eginiko lehen proposamenak zehazten segiko da.

Informazio gehiago:

korrika.eus
607 609 379
usurbil@aek.eus
Deitzailea: Korrika Batzordea.

Sagarrondotik Sagardora ikastaroa

Sagastien neguko kimaketaz eta ongarriketaz arituko da Aitor Etxeandia. Larunbat honetan, 9:00etatik 13:00era, Potxoenean.

- **Prezioa:** ikastaro osoa 96 euro, Alkartasuna Kooperatibako bazkideek doan. Saio solteetarako ere izena eman daiteke. Horretarako, Alkartasuna Kooperatibarekin harremanetan jarri.
- **Izen ematea:** 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus
- **Antolatzailea:** Alkartasuna Kooperatiba.

Datozenak

Euskal Inauteriak, Zubietatik Lasarte-Oriara

Sustraitzen doan ohitura da. Zubietarrak kalejiran ateratzen dira eta Hipodromoko zubian bat egiten dute lasarteoriatarrekin. Aurten otsailaren 23an berriuko dute ohitura.

Otsailaren 23an, kantu-jira

Datorren larunbatean, hilak 23, kantu-jira berri bat. Mikel Laboa plaza-tik abiatuko dira 12:30ean. Herritar orok parte har dezake, "har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera".

Otsailaren 27an, Jai Batzordearen bilera

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra luzatuko dira Usurbilgo festak. Jai Batzordearen bigarren bilera irekia otsailaren 27rako iragarri dute. Saio honetan, jaietarako proposamenak bildu eta egitarauan kokatzen hasi nahi dute.

- Otsailaren 27an asteazkena.
- Ordua: 18:00.
- Tokia: Potxoenea.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarrilaren 18tik maiatzak 6ra
TXOTX GARAI
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com

IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi
berria 2019, primerako
sagardoekin
943.361.229



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



943 37 39 95

Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

aginaga

SAGARDOTEGIA

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA



943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!



%100 bertako satarra

Tel: 943 365 031

Santuenea



UrbilBox

Zure planaz goza ezazu deskontuarekin.

OcioPlan



BAZKARIA EDO AFARIA +
ZINEMARAKO SARRERA

PartyPlan



VIPS SMART MENUA (12 URTE
ARTE) + ZINEMARAKO SARRERA

SuperPlan



TXIKIGUAY SARRERA DENBORA
MUGAGABEA + ZINEMARAKO
SARRERA

BeautyPlan



ILEAPAINDEGIA +
AZAZKAL-BERNIZA
+ MAKILLAJEA

PrettyPlan



MAKILLAJE SAIOA ETA
AHOLKUAK + 50€-KO OPARI
TXARTELA MODAN

ShoppingPlan



TXIKIGUAY SARRERA DENBORA
MUGAGABEA + 50€-KO OPARI
TXARTELA MODAN

UrbilBox-ak lortu ditzazkezu www.urbil.es web orrialdean,
Bezeroenganako Arreta Gunean edo honen ondoko Totem interaktiboan.



Benetako
UNEAK

urbil.es